| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA<br><br>2011-04-20 | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL<br><br>20-04-2011 |
|---|---|---|

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.
**Bilera-mota:** ohikoa.
**Eguna:** 2011/04/20.
**Ordua:** Hasiera: 17:00 eta bukaera: 17:30.
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**
Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.
Mikel Alzelai Zulaika.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain.
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia.
Fco. Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia.
Amaia Alcelay Guerrico, EAJko zinegotzia.
Lucía Areizaga Aranburu, Alkarbideko zinegotzia
Mª Aranzazu Arizmendi Gereñu, Alkarbideko zinegotzia.
Vicente Garmendia Martinez, Alkarbideko zinegotzia.
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia.
Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia.
Jose Morcillo, PSE-EEko zinegotzia.
Oscar Murillo, PSE-EEko zinegotzia.
Fernando Arakama, kontuhartzailea.
Ainhoa Urruela Bordegarai, behin-behineko idazkaria.

**Aztergaiak:**

1. Bidezkoa bada, joan den 2011/03/30ko bilkurari dagokion akta onartzea.

**GIZARTE ONGIZATEA:**

2. Bidezkoa bada, Erosketa Etikoa bultzatzeko Ekintza-plana (2009-2012) onartzea.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

3. Bidezkoa bada, Agirre-Etxeberri, Latxartegi eta Goenaga izeneko 24-25-29 eremuei dagokien hitzarmena “Legazpiberri, SL” enpresarekin sinatzea.
4. Bidezkoa bada, Elbarrena auzoan errausketa labeak dauden lurren dohaintza onartzea.

**Organo o Comisión:** Pleno.
**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.
**Día:** 20/04/2011.
**Hora:** Comienzo, 17:00 y final, 17:30.
**Lugar:** Salón de Plenos del ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**
Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.
Mikel Alzelai Zulaika.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain.
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV.
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV.
Amaia Alcelay Guerrico, concejal de PNV.
Lucía Areizaga Aranburu, concejal de Alkarbide
Mª Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de Alkarbide
Vicente Garmendia Martinez, concejal de Alkarbide
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-Berdeak
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita
Jose Morcillo, concejal de PSE-EE
Oscar Murillo, concejal de PSE-EE
Fernando Arakama, Interventor.
Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria accidental.

**Orden del Día:**

1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 30/03/2011.

**BIENESTAR SOCIAL:**

2. Aprobación, si procede, del Plan de Acción para el desarrollo de la compra pública en Legazpi 2009-2012.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

3. Aprobar, si procede, la firma, del convenio relativo a los ámbitos 24-25-29 Agirre-Etxeberri, Latxartegi y Goenaga con Legazpiberri, S.L.
4. Aceptar, si procede, la donación de los terrenos donde se ubican los hornos crematorios en Elbarrena.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

5. Bidezkoa bada, Legazpiko Urbeltz aparkalekuan publizitatea jartzea onartzeko Baldintzen Agiria onartzea.
6. Bidezkoa bada, Brinkolako geltokian dagoen ADIF enpresaren biltegia alokatzeko kontratua sinatzea.

**OGASUNA:**

7. Bidezkoa bada, Udal Inbentarioaren eguneratzea hasiera batean onartzea.
8. Bidezkoa bada, Kredituak aldatzeko espedientea onartzea, 3/2011 zenbakidun kreditu gehigarrien modalitatean.

**ALKATETZA:**

9. Olaria Saria.
10. Tibeteko Herriaren Giza Eskubideen eta Askatasunaren aldeko mozioa.
11. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
12. Eskariak eta galderak.

5. Aprobación, si procede, del Pliego de condiciones para la adjudicación de la instalación de publicidad en el parking Urbeltz de Legazpi.
6. Aprobar, si procede, la firma del contrato de alquiler del almacén de ADIF ubicado en la estación de Brinkola.

**HACIENDA:**

7. Aprobación inicial, si procede, de la actualización del Inventario Municipal.
8. Aprobación, si procede, del Expediente de Modificación de Créditos en la modalidad de Créditos Adicionales 3/2011.

**ALCALDIA:**

9. Premio Olaria.
10. Moción a favor de los derechos Humanos y Libertades del Pueblo Tibetano.
11. Dar cuenta de los decretos dictados.
12. Ruegos y preguntas.

**Esan-eginak eta erabakiak:**

**1. Bidezkoa bada, joan den 2011/03/30ko bilkurari dagokion akta onartzea.**

Bertaratu direnek aho batez onartu dute joan den osoko bilkuraren akta baina Ana Salinero zinegotzi atxiki gabeak egin duen xehetasun honekin: aurreko bilkuran bertaratutakoen artean ez da PSE-EE alderdiko Jose Morcillo zinegotzia ageri eta bilkuran egon zen.

**Temas debatidos y acuerdos adoptados:**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 30/03/2011.**

Los presentes aprueban el acta con la siguiente puntualización realizada por la concejala no adscrita Ana Salinero: en la sesión anterior no aparece entre los asistentes el concejal de PSE-EE Jose Morcillo, que si estuvo presente.

**GIZARTE ONGIZATEA:**

**2. Bidezkoa bada, Erosketa Etikoa bultzatzeko Ekintza-plana (2009-2012) onartzea.**

Alkateak hartu du hitza. Joan den 2011/03/22ko Gizarte Zerbitzuetako ohiko batzordean Erosketa Etikoari buruz hitz egin ondoren honako irizpena proposatu zaio Osoko Bilkurari:

**BIENESTAR SOCIAL:**

**2. Aprobación, si procede, del Plan de Acción para el desarrollo de la compra pública en Legazpi 2009-2012.**

Toma la palabra el Alcalde. En la Comisión ordinaria de Servicios Sociales celebrada el 22-03-2011 se trata sobre la Compra Pública Ética y se le propone al Pleno el siguiente dictamen:



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

Erosketa Etikoa bultzatzeko Ekintza-plana (2009-2012) onartzea.

Jon Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Orain urtebete Legazpin ersoketa publiko etikoa gauzatzeko konpromisoa (ekintza-plana 2009-2012) onartu zen. Gizarte Zerbitzuak eta Agenda 21 udal sailek, Emaus Gizarte Fundazioarekin batera, elkarrekin egin dugu lan Legazpin Bidezko Merkataritza sustatuko duen plana definitzeko. Plan honek 4 ildo estretegiko ditu:

1. Bidezko merkataritza eta klausula sozialak aintzat hartzea, administrazioak erosiko dituen produktuetan eta kontratatuko dituen zerbitzuetan. Bidezko merkataritza eta klausula sozialak aintzat hartzeko moduko irizpidea izan dezaketen kontratuak identifikatzea. Udaletxean erosteko barne-jarraibideak egitea.

2. Sail guztietan, zeharka, bidezko merkataritzako ekintzak eta proiektuak sustatzea. Bidezko merkataritza sustatzeko ekimenak baloratzea bultzatuko duten irizpideak zehaztea: diru-laguntzetan…

3. Erosketa publiko etikoa zabaltzeari dagokionez, ekimenak antolatzea. Barruko ekintzak (udaletxean) eta kanpoko ekintzak (elkarte eta ikastetxe desberdinekin…) antolatzea.

Aurreko hiru ildo horiek gauzatu dira dagoeneko.

4.”Bidezko merkataritzaren aldeko Hiria” titulua lortzeko hautagaitza aurkeztea.

Legazpi da Euskal Herrian Erosketa Publiko Etikoaren Proiektuan orain arte aztertu diren alderdi gehienak landu dituen Giouzkoako herria. Horregatik, Emaus Gizarte Fundazioa, Ideas eta Bakeaz partzuergoak bidezko hiriaren ziurtagiria jasotzeko aukera izatea garrantzitsua dela uste du.

Aprobar el Plan de Acción para el desarrollo de la compra pública ética en Legazpi 2009-2012.

Toma la palabra Jon Erramun Uribeetxeberria. Aproximandamente hace un año se aprobó en Pleno el compromiso para el desarrollo de la compra pública ética en Legazpi (2009-2012). Los departamentos de Servicios Sociales y de Agenda 21 han trabajado conjuntamente con Emaus Fundación Social para definir el plan que fomente el Comercio Justo en Legazpi. Las cuatro lineas estratégicas a desarrollar en el Plan son:

1. La consideración del Comercio Justo y las cláusulas sociales en la adquisición de productos y/o contratación de servicios por parte del Ayuntamiento de Legazpi.

2. El fomento de actividades y proyectos relativos al Comercio Justo de forma transversal a todos los departamentos del Ayuntamiento.

3. La difusión de las iniciativas, que en relación a la compra pública ética, lleva a cabo la administración con el objetivo de contribuir a un desarrollo sostenible y reducir la desigualdad social. Formación e información.

Las tres líneas anteriores ya se han llevado a cabo.

4. Presentación de candidatura a “ciudad por el comercio justo”.

Legazpi es el municipio de Gipuzkoa que mayor avance a conseguido en los aspectos que se han tratado hasta el momento en el Proyecto de Compra Pública Ética en el País Vasco, es por ello que desde el consorcio Emaús Fundación Social, Ideas y Bakeaz, se considera importante que, a medio plazo, acceda a la acreditación de ciudad justa. El trabajo realizado se



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

Egindako lana Agenda 21eko Ekintza-planaren 3. ildo estrategikoarekin bat dator: Kontsumo eta ekoispen arduratsuak sustatzea. Udal Batzarrak onartuz gero, Agenda 21eko planaren barruan sartuko da hobeto kudeatu ahal izateko.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 10 botorekin eta 3 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzi atxiki gabea) onartu da.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:**

**3. Bidezkoa bada, Agirre-Etxeberri, Latxartegi eta Goenaga izeneko 24-25-29 eremuei dagokien hitzarmena "Legazpiberri, SL" enpresarekin sinatzea.**

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko apirilaren 12an Hirigintza, Obra eta Zerbitzu batzordean, beste gaien artean, honakoa aztertu zela adierazi du: Agirre-Etxeberri, Latxartegi eta Goenaga izeneko 24-25-29 eremuei dagokien hitzarmena "Legazpiberri, SL" enpresarekin sinatzeko proposamena. Ondoren Hirigintza batzordeak honako irizpena proposatzen dio Udal Osoko Bilkurari:

1.- Agirre-Etxeberri, Latxartegi eta Goenaga izeneko 24-25-29 eremuei dagokien hitzarmena "Legazpiberri, SL" enpresarekin sinatzea.

2.- Legazpiko Udaleko alkate-lehendakariari baimena ematea Goenaga izeneko 29. hirigintza-eremuan (Olazabal institutuaren parean) dagoen lursaila Eusko Jaurlaritzari erosi eta "Legazpiberri SL" enpresari sal diezaion.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 10 botorekin eta 3 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzi atxiki gabea) onartu da.

enmarca en la Línea Estratégica 3 del Plan de Acción de Agenda 21: Fomentar el consumo y la producción responsables. En el caso de ser aprobado por el Pleno, se integrará en el Plan de Agenda 21 para facilitar su gestión para que no se solapen acciones iguales.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los concejales de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

**3. Aprobar, si procede, la firma, del convenio relativo a los ámbitos 24-25-29 Agirre-Etxeberri, Latxartegi y Goenaga con Legazpiberri, S.L.**

Toma la palabra el Alcalde. Se presenta ante la comisión de urbanismo del día 12 de abril de 2011 el Convenio con Legazpiberri, S.L. relativo a los ámbitos 24/25/29 Agirre-Etxeberri, Latxartegi y Goenaga. La Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno el siguiente dictamen:

1.- Firmar con Legazpiberri, S.L. el convenio relativo a los ámbitos 24-25-29 Agirre-Etxeberri, Latxartegi y Goenaga.

2.- Autorizar al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Legazpi para realizar la compra del terreno ubicado en el A.U. 29 Goenaga (frente al Instituto Olazabal) al Gobierno Vasco y vender éste a Legazpiberri, S.L.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los concejales de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**4. Bidezkoa bada, Elbarrena auzoan errausketa labeak dauden lurren dohaintza onartzea.**

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko apirilaren 12an Hirigintza, Obra eta Zerbitzu batzordean aztertu ziren gaiak ikusi ondoren, honako irizpena proposatzen zaio Udal Osoko Bilkurari:

1. Elbarrena auzoan errausketa labeak dauden lurren dohaintza onartzea.

2. Legazpiko Udaleko alkate-lehendakariari baimena ematea lurren dohaintza onar dezan eta, ondoren, udal inbentarioan sartu eta jasota gera daitezela bidera dezan.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 10 botorekin eta 3 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzi atxiki gabea) onartu da.

**4. Aceptar, si procede, la donación de los terrenos donde se ubican los hornos crematorios en Elbarrena.**

Toma la palabra el Alcalde. Visto lo tratado en la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, celebrada el día de 12 de abril de 2011, se propone al Pleno Municipal el siguiente dictamen:

1. Aceptar la donación de los terrenos donde se ubican los hornos crematorios en Elbarrena.

2. Autorizar al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Legazpi para realizar la aceptación de la donación de los terrenos y su posterior registro e inclusión en el inventario municipal.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los concejales de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**5. Bidezkoa bada, Legazpiko Urbeltz aparkalekuan publizitatea jartzea onartzeko Baldintzen Agiria onartzea.**

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko apirilaren 12an Hirigintza, Obra eta Zerbitzu batzordean aztertu diren gaiak ikusiondoren, honako irizpena proposatzen zaio Udal Osoko Bilkurari:

1.- Legazpiko Urbeltz aparkalekuan publizitatea jartzea onartzeko Baldintzen Agiria onartzea.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 7 botorekin eta 6 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak, Alkarbideko zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzi atxiki gabea) onartu da.

**5. Aprobación, si procede, del Pliego de condiciones para la adjudicación de la instalación de publicidad en el parking Urbeltz de Legazpi.**

Toma la palabra el Alcalde. A la vista de lo tratado en la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, celebrada el día 12 de abril de 2011, se propone al Pleno Municipal el siguiente dictamen:

1.- Aprobar el Pliego de condiciones para la adjudicación de la instalación de publicidad en el parking Urbeltz de Legazpi.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 7 votos a favor y 6 abstenciones (los concejales de PSE-EE, los concejales de Alkarbide y la concejala no adscrita Ana Salinero).



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**6. Bidezkoa bada, Brinkolako geltokian dagoen ADIF enpresaren biltegia alokatzeko kontratua sinatzea.**

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko apirilaren 12an Hirigintza, Obra eta Zerbitzu batzordean aztertu diren gaiak ikusi ondoren, honako irizpena proposatzen zaio Udal Osoko Bilkurari:

1. Brinkolako geltokian dagoen ADIF enpresaren biltegia alokatzeko kontratua sinatzea.

2.- Legazpiko Udaleko alkate-lehendakariari baimena ematea kontratua sina dezan.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 10 botorekin eta 3 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzi atxiki gabea) onartu da.

**OGASUNA:**

**7. Bidezkoa bada, Udal Inbentarioaren eguneratzea hasiera batean onartzea.**

Alkate jaunak hartu du hitza eta gaia mahai gainean geratuko dela adierazi du, forma akats bat duelako.

**8. Bidezkoa bada, Kredituak aldatzeko espedientea onartzea, 3/2011 zenbakidun kreditu gehigarrien modalitatean.**

Alkateak hartu du hitza eta joan den 2011ko apirilaren 18an egindako Ogasun Batzordean Osoko Bilkurari honako irizpena proposatzea erabaki zela adierazi du:

1. Udal Inbentarioaren eguneratzea hasiera batean onartzea.

2. Dokumentua jendaurrean agerian jarriko da iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo

**6. Aprobar, si procede, la firma del contrato de alquiler del almacén de ADIF ubicado en la estación de Brinkola.**

Toma la palabra el Alcalde. A la vista de lo tratado en la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, celebrada el día de 12 de abril de 2011, se propone al Pleno Municipal el siguiente dictamen:

1. Aprobar la firmar del contrato de alquiler del almacén de ADIF ubicado en la estación de Brinkola.

2.- Autorizar al Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Legazpi para firmar el contrato.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 10 votos a favor y 3 abstenciones (los concejales de PSE-EE y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**HACIENDA:**

**7. Aprobación inicial, si procede, de la actualización del Inventario Municipal.**

Toma la palabra el Alcalde. Este tema quedará encima de la mesa por motivos de forma.

**8. Aprobación, si procede, del Expediente de Modificación de Créditos en la modalidad de Créditos Adicionales 3/2011.**

Toma la palabra el Alcalde. La comisión de hacienda celebrada el 18 de abril de 2011, le propone al Pleno el siguiente dictamen:

1. Aprobación inicialmente la actualización del Inventario Municipal.

2. Someter el documento a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

lanegunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3. Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Irizpena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aldeko 7 botorekin eta 6 abstentziorekin (PSE-EEko zinegotziak, Alkarbideko zinegotziak eta Ana Salinero zinegotzi atxiki gabea) onartu da.

**ALKATETZA:**

**9. Olaria Saria.**

Alkateak hartu du hitza eta urtero egin ohi denez, Osoko Bilkurak Olaria saria eman behar du. Une oro, Legazpiko Udaleko Ohore eta Goraipamenetarako Araudi Berezian ezarritakoa errespetatu dela jakinaraz du. Horrela, joan den 2011ko martxoaren 8an epaimahaia bildu zen eta aurkeztutako hautagaien artean honakoak geratu ziren finalista: ATZEGI 7 botorekin, Musika Banda 5 botorekin eta Pilota eskola-Futbol 7, 2 botorekin.

Finalistak aukeratuta, jarraian bigarren bozketa egin da eta ATZEGI elkarteak 4 boto jaso zituen eta Musika Bandak 3. Emaitzak ikusita, 2011ko OLARIA saria ATZEGI elkarteari ematea proposatu du epaimahaiburuak

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren aho batez onatu da.

**10. Tibeteko Herriaren Giza Eskubideen eta Askatasunaren aldeko Mozioa.**

Segidan, Mikel Alzelai zinegotziak hartu du hitza eta akta honi erantsi zaion mozioa irakurri du.

reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3. En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Sometido el dictamen a votación es aprobado con 7 votos a favor y 6 abstenciones (los concejales de PSE-EE, los concejales de Alkarbide y la concejala no adscrita Ana Salinero).

**ALCALDIA:**

**9. Premio Olaria.**

Toma la palabra el Alcalde. Como todos lo años el Pleno ha de conceder el Premio Olaria. Se ha respetando lo establecido en el Reglamento Especial de Honores y Distinciones del Ayuntamiento de Legazpi. El 8 de marzo de 2011 se reunió el jurado y entre las candidaturas presentadas los finalistas fueron ATZEGI con 7 votos, la Banda de Musica con 5 votos y Pelota Eskola-Futbol 7, 2 votos.

Elegidos los finalistas, se procede a una segunda votación, siendo el resultado de 4 votos para ATZEGI y 3 votos para la Banda de Música, A la vista de los resultados, el Sr. Presidente del Jurado propone otorgar el distintivo honorífico OLARIA 2011 a ATZEGI.

Sometida la propuesta a votación es aprobada por unanimidad.

**10. Moción a favor de los derechos Humanos y Libertades del Pueblo Tibetano.**

Toma la palabra Mikel Alzelai para dar lectura a la moción que se adjunta el presente acta.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

Jarraian, Jose Morcillo zinegotziak hartu du hitza. Iñaki Sanchez zinegotziari esan nahi dio bozketa egitean beraiek alde egin dutela ikustean harritu egin dela ikusi duela. Norberak gutxienez autonomia izateko eskubidea duen herrialde baten alde egiten du. Bestalde, haien bandera hemen jartzea ez doa, izpirituan behintzat, estatu espainolaren aurka; estatu espainolak bere bandera du eta horrela dago onartuta estatuko sinboloen Legean. Egun batzuetan beste herrialde bateko bandera jartzeak, autonomia gisa gutxienez, ez du berak uste Estatuko sinboloen Legearen aurka doanik, kasu horretan ez delako estatu baten sinbolo historiako izan zen bat, errepublikako bandera, estatu beraren sinbolo baten aurka jartzen. Beraz, Iñaki Sanchez zinegotziak espantu egiteko eskubidea duela pentsatzen badu ere, gustura hartzen ditu horiek eta orain eman dion azalpena ematen dio.

Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza. Askatasuna sinbolizatu nahi denean berak ez dituela bandera desberdinen artean bereizitasunik egiten adierazi du. Horregatik ematen du aldeko botoa, bai aurrekoan eta bai oraingoan.

Mozioa erabakitzeko botoetara jo ondoren aho batez onatu da.

Toma la palabra José Morcillo. Dirigiéndose a Iñaki Sanchez indica que ha visto que se ha extañado de que hayan votado a favor de esta moción. Uno se solidariza con un pueblo que efectivamente tienen derecho a ser, por lo menos, una autonomía. Por otra parte, el poner la bandera aquí no va en contra, al menos en el espíritu, de lo que es el estado español, que tiene su propia enseña, admitida por la Ley de simbología del estado. El hecho de que se ponga unos días la bandera de un país, al menos como autonomía, no cree que ponga en peligro el cumplimiento de la Ley de Símbolos del Estado, puesto que no se está contraponiendo un símbolo del estado con otro sínbolo histórico que lo fue del propio estado como es la bandera republicana. Por tanto, aunque cree que Iñaki Sanchez tiene derecho a hacer aspavientos, los recibe gustosamente y da esta explicación.

Toma la palabra Iñaki Sanchez. Cuando se trata de simbolizar la libertad el no hace distingos entre banderas. Por eso vota que si en esta y en la anterior.

Sometida la moción a votación es aprobada por unanimidad.

**11. Luzatu diren dekretuen berri ematea.**

Javier Iraeta zinegotziak hartu du hitza. Planeamenduko aholku batzorderako dei egitearen gaineko 76. Dekretuari buruz galdetu du.

Alkateak hartu du hitza. Bilera hori egin da. Hiri-antolamendurako Plan orokorra aldatzeko ezinbestekoa da batzorde hori biltzea. Planaren aldaketa hori (kamioien aparkale-kuarena) joan den Osoko Bilkurara eraman zen eta batzordea hori lehenago egin zen.

Arantza Arizmendi zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez berdinak diren bi dekretu daudela

**11. Dar cuenta de los decretos dictados.**

Toma la palabra Javier Iraeta. Pregunta sobre el Decreto 76 “convocar reunión del consejo asesor del planeamiento”.

Toma la palabra el Alcalde. La reunión ya se ha celebrado. Para poder modificar el PGOU es necesario reunir a ese consejo. Ya se pasó en el Pleno anterior la modificación del PGOU para el tema del aparcamiento de camiones y antes de eso se celebró el consejo.

Toma la palabra Arantza Arizmendi. Indica que que hay dos Decretos, el 113 (“Adjudicar a Noemi Cantero sevicio de



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

esan du: 113.a ("gizarte-zentroko masajista zerbitzua Noemi Cantero andreari esleitzea") eta 140.a ("gizarte-zentroko masajista zerbitzua N. Aznar Cantero andreari esleitzea"). Abizenak ordenez aldatuta daude bi Dekretutan. Bestalde, gai hori Pertsonal batzordetik pasatu den galdetu du.

Behin-behineko idazkariak hartu du hitza eta hor akats bat dagoela esan du. Lehenengo dekretua dokumentazioa eskatzeko egin zen, eskaera hori Alkatetzaren Dekretu bidez egiten delako. Abizenen orden aldaketarena jasota geratzen da. Azkenik, gai hori Pertsonal batzordean komentatu dela adierazi du.

**12. Eskariak eta galderak.**

Alkateak, arratsaldeko 17:30ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

masajista en Centro Social") y el 140 ("Adjudicar a N. Aznar Cantero servicio de masaje en centro social") que cree que son lo mismo. Ademas los apellidos están en diferente orden en los dos Decretos. Pregunta por otra parte, si este tema se ha pasado por la Comisión de Personal.

Toma la palabra la Secretaria Accidental. Indica que ha habido un error ya que el primero no es la adjudicación sino el requerimiento de documentación que también se hace por Decreto de Alcaldía. Por lo que respecta al orden de los apellidos se toma nota. Por último, indiaca que si se ha comentado en la Comisión de Personal.

**12. Ruegos y preguntas.**

El alcalde levanta la sesión, siendo las 17:30 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe.

| | |
|---|---|
| Akta hau 2011/06/08an egindako bileran onartu zen:<br><br>☐ bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.<br><br>☐ baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak. | Este acta fue aprobada en la sesión del d 08/06/2011:<br><br>☐ en su integridad, sin ninguna objeción.<br><br>☐ si bien en el acta de la sesión de dicho día recogen las objeciones registradas. |
| Ainhoa Urruela Bordegarai<br>Idazkaria | Sotero Plazaola Odriozola<br>Alkatea |



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Fax. 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net